


OTOIO ESKALADA ESKOLA



Otoio eskalada eskola



Otoio escuela de escalada



LEA-ARTIBAI AMANKOMUNAZGOA
 Patrokua Jauregia • Xemein etorbidea, 13
 48270 MARKINA-XEMEIN (Bizkaia)
 turismoa@learjai.com • www.learjai.com





Otoio mendia (399 m.) Ispaster eta Lekeitio udalerrien barruan dago. Iparraldeko isurialdea da malkartsuena, itsasoarekiko bertikalak diren kareharrizko itsaslabar ikaragarriek osatzen baitute.

Inguru honetan daude, hain zuzen, eskalatzeko bi sektoreak, **Zirin** eta **Untza** izenekoak, 14 eta 5 bide dituztenak hurrenez hurren, "Aurrera Mendi Talde"ko eta "Zintzilik Eskalada Talde"ko kideek taxutu eta hornitu dituztenak. Otsailaren hasieratik ekainaren bukaera arte ezin izaten da eskalatu.

Otoio mendia "Interes Naturalistikoko Inguru" izateko proposatu da, bertoko fauna eta flora txit joriak baitira. Hori dela eta, natura-ingurunearekiko jarrera arduratsua izatea gomendatzen dugu.

El monte Otoio (399 m.) está situado dentro de los términos municipales de Ispaster y Lekeitio. De sus vertientes, la más abrupta es la cara norte, constituida por impresionantes acantilados calizos que caen verticalmente sobre el mar.

Es en esta zona donde se encuentran los 2 sectores de escalada, denominados **Zirin** y **Untza**, con 14 y 5 vías respectivamente, diseñadas y equipadas por miembros de *Aurrera Mendi Taldea* y *Zintzilik Eskalada Taldea*. La práctica de esta actividad está prohibida desde comienzos de febrero hasta finales de junio.

El monte Otoio está propuesto como Área de Interés Naturalístico, debido a la riqueza de su fauna y flora. Es por ello por lo que se recomienda un especial comportamiento para con el medio natural.



NOLA HELDU

Lekeitiotik Ispasterera doan bidean herria igaro ondoren kilometro batetara dagoen bidegurutzean utziko dugu kotxea.

Aparkalekuan hasten den bidea hartu eta porlanezko bidearen lehen bihurgunea igaro ondoren, eskubitara daukagun bidexkatik gora egingo dugu. Bide honek Talaiara eramango gaitu (15'). Talaiako etxe ondotik igaro eta aurrera jarraituz joango gara bide estu batetik. Bidea amildegiaren ondotik igarotzen da.


Aurrerago ezkerretara eta beherantz egingo du, bidegurutze batera iritsiko gara. Hemen eskubitara jarraituko dugu, bidea zabalagoa da. Jarraian aldapatxo batetik behera egiten du bideak eta ezkerretara landatutako baso bat igaroko dugu. Azken bihurgunea eta apur bat aurrerago eskubitara dagoen harri multzotik beherantz jarraituta hormak gure aurrean ikusiko ditugu.

CÓMO LLEGAR

Dejaremos el coche en el cruce que se encuentra a un kilómetro de la carretera que va de Lekeitio a Ispaster, después de pasar el pueblo.

Tomaremos el camino que parte del aparcamiento y tras pasar la primera curva del camino de cemento, ascenderemos por el sendero de la derecha. Este camino nos llevará hasta la Atalaya (15'). Pasaremos junto a la casa de la Atalaya y continuaremos por un camino estrecho que discurre junto al precipicio.

Más adelante, tiraremos hacia la izquierda, cuesta abajo, hasta llegar a un cruce. Desde aquí, seguiremos por la derecha, por un camino más ancho. A continuación, el camino desciende un poco, y dejaremos a la izquierda un bosque en plantación. Continuando cuesta abajo, por un conjunto de piedras que están a la derecha, un poco más adelante de la última curva, veremos las paredes ante nosotros.





UNTZA
sektorea




ZIRIN
sektorea

HORMEN ARGIBIDEAK

Harri mota: Kare-haitza
Ekipamendua: Materiala erdoilteztina, hagatxo hariztatua erretxina kimikoarekin.
Sektore kopurua: 2
Ibilbide kopurua: 19
Zailtasuna: 5a-7a
Orientazioa: Iparraldera
Luzera: 12m-31m

DATOS PRÁCTICOS

Tipo de roca: Roca caliza
Equipamiento: Material inoxidable, varilla roscada con resina química.
Numero de sectores: 2
Numero de vías: 19
Dificultad: 5a-7a
Orientación: Norte
Altura de las vías: 12m-31m




ZIRIN sektorea

Izena	Luzera	Seg.kop	Zailtasuna
1 Koasta	13 m	5	6b
2 Ezinin	14 m	5	5b+
3 Al dan latxeik	14 m	5	5c+
4 Erretz	12 m	5	5c
5 Natxon fileti	13 m	5	5c
6 Ekintza zuzena	13 m	5	6c
7 Hagatxo hariztatua	15 m	7	5c+
8 Ibon askatu	17 m	7	6a+
9 Ultza bat	17 m	7	5a
10 Hartzito	22 m	9	6b
11 Bilurraren kalea	28 m	9	5c
12 Ja-ja eta ji-ji asko baina jo gutxi	22 m	10	6b+
13 Fish & bear	12 m	6	5b
14 Ez fish	20 m	10	6a+




SEGURTASUNEKO AGINDUAK CONSIGNAS DE SEGURIDAD



UNTZA sektorea

Izena	Luzera	Seg.kop	Zailtasuna
15 Txibitron	18 m	8	6b
16 Angelillo txiflin	22 m	11	6a+
17 Yukaibuxiuganxilie ⚠	31 m	12	6a
18 Atzetik dariola	28 m	11	7a
19 Marroi goxan da	25 m	10	5c+



- 1.- Eskalatzailea edo alpinista da bere segurtasunaren erantzule bakarra.
- 2.- Adingabeak badira, gurasoak edo laguntzaileak dira erantzuleak.
- 3.- Edozein aholkuk edo laguntzak ez du, jasotzen zein erabiltzen duenari, biderei edo igoerari ekiten dionean dagoen arriskua ebaluatzetik salbuesten.

Hortaz, eskalatzaileak edo alpinistak hauxe egin beharko du:

- 3.1. egiaztatu bidea bere mailarekin bat datorrela, modu posible guztien bitartez (ikusizko miaketa, bibliografia, norbaitek –fidagarria beharko du izan– emandako datuak).
- 3.2. egiaztatu instalatutako ekipamendua nahikoa dela –kantitatea zein kalitatea–, bere maila, ekipamendua, eta erortzeko arriskuen balioespena kontuan hartuta.
- 3.3. jakin ezagutzen, ertz ezegonkorra edo ainguraketa zaharkitua edo desegokia den.
- 3.4. jakin uko egiten, ekindako biderearen ezaugarriak menderaezinak direla berarentzat, bere mailaren arabera.

Babes-kaskoa

Nahitaz erabili beharko da kaskoa, Klubetako edo Federazioko profesionalak edota borondate onekoek programatutako edota zuzendutako jarduerak kirol-eskaladako lekuetan dirauten bitartean.

Gomendagarria da kaskoa banakako praktikan, haririk edo materialik erortzen bada, edo eskalatzailea eroriz gero, plautadatik burua babesteko. Azken finean, banakako segurtasun-elementua da kaskoa, eta norberak erabaki beharko du erabiltzea ala ez erabiltzea, beharrezkotzat jotzen badu eta gerta daitezkeen arriskuak kontuan hartu ondoren.



- 1.- El escalador o alpinista es el único responsable de su propia seguridad.
- 2.- En caso de menores de edad, esta responsabilidad les incumbe a los padres o a los que los acompañan.
- 3.- Cualquier consejo o ayuda no dispensa al que los recibe o los utiliza de evaluar a lo que se arriesga cuando emprende la vía o la ascensión.

Por consiguiente, es necesario que el escalador o el alpinista:

- 3.1. se cerciøre por todos los medios posibles (examen visual, bibliografía, datos comunicados por otra persona cuya fiabilidad debe apreciar) de que la vía corresponde a su propio nivel.
- 3.2. se cerciøre de que el equipamiento instalado es suficiente en cantidad y calidad, habida cuenta de su nivel, del equipo que tiene y de la estimación que él hace de los riesgos de caída.
- 3.3. sepa reconocer un canto inestable o un anclaje vetusto o inapropiado.
- 3.4. sepa renunciar, si le parece que la vía que ha emprendido presenta características que no puede dominar teniendo en cuenta su nivel.

Uso del casco

Durante las actividades programadas y/o dirigidas (por profesionales o benévulos) de los clubs o de la federación en los sitios de escalada deportiva, el uso del casco es obligatorio.

En la práctica individual se recomienda el uso del casco para proteger de las caídas de piedra, de materiales y de choques eventuales en una caída. En definitiva, se trata de un elemento individual de seguridad y cada uno, según lo crea necesario y tras considerar los riesgos potenciales, decide llevarlo o no.

